

Er piipilean

Soraluzeko Hamabostekaria 52. alea 2002ko ekainaren 28a

Ezoziko Baseliza

Eraberritu berria



**Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean**

GOL

GOL, S.A. Industriak

Sagar Erreka, 19 45 PK

20590 SORALUZE

Tfnoa. 943 75 21 00 / <http://www.gol.es>

**IRATXO
GOXOTEGIA**

**EGUNKARIA
ETXERA ERAMATEN DIZUGU
GEHIAGO ORDAINDU GABE**

ETXABURUETA, 4
20590 SORALUZE
telefonoa: 943 75 13 20

Mendata taberna



Berezitasunak:
*Txipirotiak, Barazki
Menestra, Gixauak...*
Asteburuan plater
konbinatuak
**Enkarguak etxerako
(bazkariak eta afariak)**

Kalebarren, 5
Tfnoa 943 75 13 87

TXOKO KAFETEGIA



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22 behea, telf: 943751789

Instalaciones Kalebarren S.L.



20590 SORALUZE TEL. / FAXA: 943 75 23 07 ESKUKO TEL.: 608 67 40 70 / 607 40 37 92
48017 DEUSTU TEL.: 944 75 99 60 POSTA ELEKTRONIKOA: KALEBARREN@NICIA.ES



Edozein unibertitate?

NIKOLAS MORILLO

Ekaina da, eta behar den legez, unibertitate batean azterketa bat egiteko ikasle talde bat elkartu da, Nekane, Jon, Andres eta Luisa. Atzean geratu dira hain gogorrak izan diren ikasteko egunak eta gauak, hainbeste ordu lanean. Oraindik ere buruan dituzten zalantzak komentatzen dituzte beldurrak jota.

Azkenean, azterketa egiteko ordua heldu da; dena isiltasuna, urduritasuna eta bildurra bihurtu da, zortea opa izanez, gelan sartzen hasten dira.

Hiru ordu beranduago irtezeari ekin diote, nekatuak, urduritasuna ahotik dariela; galderak, erantzunak, buruketen emaitzak... Aurpegi batzuk poza adierazten dute, beste batzuk ordea, etsipena besterik ez dute azaltzen. Ordu erdi beranduago, egin behar zena egina dagoela konturatzen dira eta ez daukala buelta-

rik. Geratzen den gauza bakarra emaitzak itxoitea da, beti itxaropen txiki batekin.

Bat egina dago eta hurrengo prestatzen hasi beharko dugu baikortasunaz beteta. Agurtu baino lehen, edozein zalantza izanez gero telefonoz deitzeko geratu dira.

Beno, bukatu baino lehen, esan beharra dago, Nekane hogeita hamar urteko langilea dela, Jon hemeretzi urteko langile bat dela, Andres berrogeita hamazortzi urteko teknikari bat dela eta Luisa berrogei urteko etxeoandrea dela. Bai egia da, ez da ikasle talde arrunt bat, baina ez daude unibertitate arrunt batean ere, Bergarako UNEDean ikastean ari dira. Nahiz eta talde arrunt bat ez izan, bere ilusioak bai direla talde baten ilusioak, eta ez bakarrik hori, handiagoak direla esango nuke.

Telegrapak

Greba egun bat aukeratu bihar eta...STOP. 19kua aukeratu genduan. STOP. atzekaldia agerixan geratu jakula?. STOP. ba bai, baina baita beste askori be!. STOP. Operazion Trinfoko Rosa plaentxiara be etorri da kasi. STOP. besterik ez genduan falta. STOP. "Plaentxia living of celebration...". STOP. lehenago be badago hemen arantzadun nahikua larrosa. STOP. 9 Plaentxiarrek 3 haundixak egin dittuela, eta zer?. STOP. 20 orduan geuk be bai!. STOP. San Juan gabian batendonbati entzun gontzan!. STOP. "honek Pil-pileanekuok, ya ke kobratzen daben, jarri leikien aste bururo zeozer ezta? Buruhaundixak edo!". STOP. Bai, bai, zelako ideia hona, monstro bat zara kultura kontuetan! Mamorro bat! (persona konprometitutu bat). STOP. ez dakizu zelako edarki bizi garan Pil-pileanekuok Udalaren kontura! Uuuff!. STOP. etorri zeu be pastela jatera, danondako daota!. STOP. (Egixa da bai mundu honetan bakoitza bere pedora bizi dala!). STOP. Amaitzeko, herrixan kirolari berri baten agerpena izan dogula aipatu bihar. STOP. hil honetan jakin dogu; Gregorito Mendata Sinatrak kantuan baino hobeto egitten dabela boletan. STOP. Zorionak Gregorito!. STOP. San Andresko edadetuok badakizue, azti ibili!. STOP. datorren alerarte, pasa uda on! bat!



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkarte
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Sorluze.
Telefonia 943 75 13 04

Zuzendaria: Gurutze Ariznabarreta

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno

Erredaktoreak: Enara Agirre, Eguzkine Aldazabal, Gurutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Jon Oregi, Oier Oregi, Eduardo Pombar, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno.

Publizitatea: Jon Oregi eta Jon Basauri
(943751304 tel.)

Banaketa: Pil-pilean **ekoizpena:** 1.850 ale

Inprimategia: Gertu Koop. **Azala:** Aitor Madrid

Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid

I.Z.K.-a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORLUZEKO
UDALA



EUSKO
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA



Ezoiko ermita eraberrituaren inaugurazioa

Erreportaia

“Ezker-eskubi Deba ibaia inguratzen duten bi mendi ilaratan, ikusten ditugu, han hemen, baselizak; gehienetan mendi tontortxoetan. Gure garai bateko herritarren fedea eta kristautasuna gogoratzen digute”.

Jokin Mitxelena

Zorion agurrak



Jone Arruabarrena
2002-7-11 11urte
Zorionak guapetona!
Ia oin arte bezain alai
eta jator jarraitzen
dozun. Patxo haundi
haundi bat.
Etxekuak



Leo Zarobe
2002-6-29
Zorionak mutiko. Ia
futbolista penomeno
bat izatia lortzen duan!
Senidiak

Jesus Gil
2002-7-15 38 urte
Zorionak eta jarraitu
oin arte bezela. Muxu
haundi bat etxekuen
partez.
Senidiak
Gonzalo Ariznabarreta
Hiru Haundixak egin eta
gero zer? Himalaya?
Zorionak!

Bi seme eta andriaren
partez.

Jaiotakoak: Galder Gonzalez Hernandez
Gerai Gonzalez Hernandez
Hildakoak: Hipolita Oteiza Astigarraga
Pilar Oruna Elexpuru

Gutunak

Alcala Mecoco Euskal Presoen
Senideok Euskal Gizarteari

Alcala Mecon espetxeraturik dauden euskal preso politikoen senideok gure kezka adierazi nahi diogu euskal gizarteari, egun kartzela horretan bizi den egoeraren aurrean.

Badira zenbait hilabete, Alcala Mecon dauden euskal presoak ziegetan binaka egotera behartuak izan direla, urtetako borroken ostean ziegan bakarrik egon ahal izateko lortutako eskubidea urratzen ari zirelarik. Presoentzat, ziegan bakarrik egotea kartzelaldia duintasunez eraman ahal izateko ezinbesteko baldintza eta eskubidea da, bizi baldintza duinetan egon daitezen oinarritzako baldintza. Madrilako kartzelatan ematen ari den masifikazioa aitzakia eta kartzelako zuzendaritzaren utzikeria dela eta, egun gure senideak 12 metro karratutako espazioan daude binaka eta honek kartzelako bizi baldintzen gogortze izugarri larria eragin du.

Ziegetan bakarrik egoteko eskubidearen urraketaekin batera, kezkagarria da oso Alcala Mecoco gazteentzako moduloan

bizi den egoera. Betidanik modulo gatazkatsua izan den honetan, jipoiak eta erasoak egunerokotasunaren ezaugarri dira. Preso sozialak maiz oldartu izan zaizkie euskal presoei eta funtzionarioek arazoari muzin egiteaz gain, askotan eurak izan dira erasoak ahalbideratu dituztenak. Horren aurrean, gazteen moduloan euskal presorik ez egotea eskatu izan dute beti gure senideek eta bolada luze batez horrela izan da, presoek kartzelarekin hitzartu ostean. Baina, adostutakoa ez da betetzen ari eta gure senide gazteenak modulo gatazkatsu horretan daude, horrek dakarren arriskuarekin eta gudan eragiten dituen ezin negon eta kezkarekin.

Egoera honen aurrean, gure senitarteko presoek zenbait borrokei ekin zieten orain dela aste batzuk, itxialdiak, plantoak eta egun segitzen duen itxialdia eta txandakako gose greba mugagabea eginenez, besteak beste. Borroka hauek direla eta, kartzelako zuzendaritzak arazoari irtenbidea bilatu beharrean, gure senideak zigortu ditu eta egun isolamendu egoeran daude guztiak. Isolamenduak egoera gogortu besterik

ez du egiten, patiora irteteko bi ordu eskas dituztelako eta beraz, 22 ordu ziegetan egotera behartuta daude, kasu askotan, arestian aipatu bezala, binaka daudelarik. Egunotan, borrokarekin segitzen dute gure senideek eta itxialdian daude egoeraren konpontzea eskatzeko.

Hargatik, gure senideen borrokarekin bat egiten dugula adierazi nahi dugu, haien oinarritzako eskubideen aldeko borroka delako. Garaiotan asko dira giza eskubideekin ahoa betez dabilzanak, gure senideen giza eskubideak baina, etengabe urratuak badira ere, hitzik ez dute aipatzen kartzelako egoeraren inguruan. Senideok ordea, ez gara ixilduko eta gure seme-alabn, gurasoen, lagunene eta gure eskubideak bermatuak izan daitezen lanean jarraituko dugu eta gurekin bat egitera deitzen dugu euskal gizartea, giza eskubideen aldeko borroka honetara hubil dadin: guztion erantzunkizuna delako eta guztion artean lor dezakegulako.

Soraluzeko Etxerat

Agenda

PEPE REYREN HITZALDIA

Uztailaren 4an Arranoan
Arratsaldeko 20:00etan

Narkotrafikoaren eta boterearen
arteko harremanen inguruan jar-
dungo dau.

HERRIZ HERRI AHTRIK EZ

Ekainaren 30tik uztailaren 6ra
Gasteiz, Donostia-Bilbo Martxa
bizikletaz eta oinez.

Uztailaren 14an
Marraskilo Operazioa Ipar Euskal
Herriko Elkarteekin

OHARRA:

Liburutegiko ordutegi aldaketa

Udal liburutegiak uda garaian izango duen ordutegia jakinarazi du aste honetan. Uztailaren 1etik 24 ra izango da zabalik liburutegia, goizeko 9:30etatik 12:00etara eta ostegunetan arratsalde, 18:00etatik 21:00etara ere bai. Abuztuan itxita izango da eta irailan arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara izango da zabalik.

Javier Alonso Zelaieta

Hortz klinika



Mediku estomatologoa
434 zenb. kol.

Atxuri, 1 - 1. eskuma
Tfnoa 943 75 16 13



Barra kargadore automatikoak
eta makina bereziak

ETXEHUN, S.A.L.

Mendiola Industrialdea 14-5
Tfnoa 943 75 18 91
Faxa 943 75 24 58
E - maila: etxehun@teletel.net
etxehun@euskaltel.net

20590 SORALUZE
Gipuzkoa

Zer irizten dotsazu?

Egingo al zinake organu emaile?



Jone Arruabarrena
10 urte Ikaslia

Bai, holan jendiari bizitzia salbau leike. Organuak donau ezker hori jasotzen dabena hobeto biziko da.



Gabriel Galan
27 urte Artista

Nik ez dot organurik emango inok ez dittu ta onartuko. Emotekotan nahi naberen pertsona bati izango litzake.



Alazne Etxabe
36 urte Operarixua

Einda nao oin dala hamar urtetik. Biharrezkua ikusten dot gu ez garrantzian beste batek aurrera ein deitzen.



Oskar Gabilondo
47 urte Tornerua

Bai, ni eingo nintzake, ze biharrezkua da. Normalena danok eittia izango litza hola organu faltarik ez egoteko.



Mari Karmen Oñate
53 urte Etxekoandria

Bai, baina pasatzen dana da beti laga eitten dotsagula. Nik premiñazkua ikusten dot gero ta jende gehixaok bihar izaten dabelako.



Jose Angel Basauri
58 urte Delineantia

Ni helduegixa naiz, baina bateronbategen aprobetxauko balittu, ba orduan emongo nittuzke, gaur egun jente asko dao-ta organo baten zain .

Ugaitz Catalan eta
Enara Agirre



MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren,10
Telefonoa 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonoa 943 75 13 99
SORALUZE



SAN ANDRES
Iturgintza

*Iturgintza, Gasa, eta
Berogailuak
Sukaldeak eta bainuak*

Errebal kalea 2 behea
Tfnoa 943 75 16 46

Bai Euskararen hirugarren bilera



Aste honetan egin dira, Soraluze-ko Bai Euskarari Plan Estrategikoaren barruan; kirol, kultura, gastronomia, hezkuntza eta beste zenbait alorreko taldeekin euskararen inguruko gogoeta bilerak. Oraingo hau 3. bilera izango da, eta aurreko bi bileretan taldeen euskararekiko egoera eta honen aurrean hartu beharreko neurriak zehaztu baziren, 3. Bileran honetan; neurri horiek ekintza plan baten barruan txertatu dituzte. Irailean euskalduntze plan hauek betetzeko konpromisoa hartuko dute taldeek eta hortik aurrera hasiko da eguneroko jarduna euskalduntzeko lana.

Suaren gainetik saltoka

Pil-pilean Kultura Elkarteak antolatuta, San Juan Bezperan egin zen sua Plaza Barrixan. Arratsalde guztian lanbroa egiten jardun bazuen ere, Sua pizteko orduan atertu egin zuen eta sua piztu osteko dantza eta ekitaldiak normaltasunez burutu ahal izan ziren. Herritar asko hurbildu zen Suaren ingurura (200 bat pertsona). Sorgin dantza eta trikitixa dantza egin ostean, gaztetxoek sua itzali artean, suaren gainetik saltoka jardun zuten.



Soraluze Euskal Armagintzaren oinarri



Jose Antonio Azpiazu historialari eta antropologoak idatzi berri duen liburua-
ren aurkezpena eginzuen, "Picas Vascas en Flandes. Historias de Armas de Euskal Herria". Idazleak dioenez, "Soraluze euskal armagintzaren oinarria izan zen, mugimendu guztiaren buru. Gau eta egun jarduten zuten lanean. Kooperatibismoan oinarrituta, guztiz menderatzen zuten teknikaeta eskaera berrietara erraz moldatu ere bai. Hizkuntzari dagokionean, aipagarria da erabiltzen zituzten euskal hitz tekniko-
n aberastasuna eta hitz berriak asmatzeko zuten gaitasuna".

Grebak jarraipen handia Soraluzen

Joan zen ekainaren 19 sindikatu abertzaleek eta 20an sindikatu espainiarrek, Greba eguna deitu zuten Hego Euskal Herrian. Soraluzen ekainaren 19ko Grebak izan zuen jarraipenik handiena. Komertzio eta tabernarik gehienak itxita izan ziren, enpresen gehiengo handi bat ere bai eta Udalean ere hainbat langilek greba egin zuten. Sindikatu abertzaleek oso arrakastatsutzat jo dute Soraluzen grebari emandako erantzuna eta istilurik eza azpimarratu nahi izan dituzte, jarraipen bateratu eta paketsu horren adierazgarri moduan.

Operación Triunfoko Rosa Soraluzen

Joan zen asteko Super Pop musika aldzkariak, abuztuaren 5ean Operación Triunfoko Rosak Soraluzen kontzertua eskeiniko zuela zekarren. Noski, informazio hau ez zen zuzena eta Udalak aldzkari honetara deitu eta akatsaren berri eman eta zuzentzeko eskaria egin zion. Dirudienez, Rosak Plasencian (Caceresen) eskeini behar du kontzertua eta ez "Placencia (Gipuzkoa)"-n.

Ordutegi aldaketa KZgunean

Uda datorrela eta uztaileko ordutegia goizeko 8retatik arratsaldeko 4retara izango da.

Gainera, uztailaren 5a aurretik, Frantziako Tour-eko porran eman dezakezu izena. Ordenagailu, bidaia, grabagailu eta beste hainbat sari lortu ditzakezu.

SORALUZeko KZ GUNEA

ITUR iturgintza

**Iturgintza, Gasa
Berogailuak
Sukaldeak eta Bañuak**

Santa Ana, 20 Behea
Tlfona: 943 75 12 41
Sakeleko tlfona: 639 17 96 96



BELARROK

LORADENDA ETA BELARDENDA

EROSKETAK ETXERA DARAMATZAGU

Santa Ana, 2 behea
Tel.: 943 75 30 11
Eskukoa telfnoa: 646 43 90 40
20.590 SORALUZE



Batasunaren plantoa udalean



Ekainaren 24tik 30era, Batasuna alderdiak "Plante Istituzional Aktibo" bat egingo du Euskal Herri osoko erakunde eta instituzioetan, Espainiar gobernua "Euskal Herri osoaren eta bereziki Batasunaren aurka" egiteko onartu duten legea salatzeko. Soraluzeko Batasunak ere bat egin du ekimen honekin eta aste honetan Udaleko jardun politikoa baldintzatzen saiatu dira. "Eguneroko lan eta erabakietan parte hartu gabe" idatzi bat irakurri dute astean zehar egin diren batzorde guztietan. Larunbatean 12 orduko enkartelada egingo dute ilegaltzaioaren aurka azaltzeko.

Udaleko ordezkariak Avilako espetxean

Joan zen asteburuan, alkatea, alkateordea, EAko zinegotzia eta Batasunako zinegotzi bat Avilako espetxean izan ziren Lurdes Txurruka plaentxiar presoaren egoera bertatik bertara ezzagutzen. Bisita hau, Udalak joan zen irailean udal komisio bat sortu eta presoak bisitatzeko hartu zuen erabakiaren ondorio da.

Bestalde, Soraluzeko Etxerat taldeak ostiralean 20:00etan plazan Euskal Presoak Euskal Herriratzearen alde egingo den enkarteladara dei egiten die soraluzetar guztiei, "injustizia eta sufrimendu honekin amaitzeko ordua iritsi dela" azpimarratuz. Etxeraten esanetan, presoaren egoera gero eta gogorragoak eta instituzioek "injustizia honen aurrean erakusten duten indiferentziak, bigarren mailako hiritar" senti arazten ditu senideak.

Argiak San Andresko frontoian

Joan zen astean hasi ziren San Andresko frontoia argiz hornitzeko lanak. Jabier Garmendia Nekazaritza Saileko zinegotziaren esanetan "jaixetarako jarritta izango dira argi fokuek". Honetaz gainera, frontoia atzekaldeko lur tontorra kentzeko lanak ere hasi dira. Asmoa, atzekaldeko parte jan eta aurrerago, 3 urteren buruan komun edo aldagelak egitea da.



Kontrargiren erakusketa Kiroldegan



Ekainaren 18tik 29ra izango da zabalik erakusketa. Larunbatean 12etatik 13:30etara eta astelehenean 19etatik 20:30etara zabalduko ditu ateak.

Balkoi edertuen saria



Ezozki bideko 18. atarian bizi den M^a Karmen Orueta izan da Debegesak antolatutako Balkoi Edertuen I. Lehiaketako Soraluzeko irabazlea. Zorionak

Debabarrena ezagutzeko aukera familiendako

Debabarrenako Debegesa elkarrekin antolatuta, "gure bailarako aukera turistikoak eta aisialdiko eskeintza anitza ezagutarazteko helburuarekin", barrualdeko familiei kostaldea ezagutu eta kostaldeko berrualdea ezagutzeko aukera eskeini nahi die ekimen honek. Soraluzeko irteera uztailearen 21ean izango da Elgoibar eta Mendaroko familiekin batera eta Lasturren azoka ekologikoa, Mutriku portu ingurua eta Gorixo baserria eta Deban plaza ezagutzeko aukera izango da. Izenematea irteera aurreko astelehena baino lehen egin beharko da 943 821338 telefonon.



HNOS. BENITO ANAIAK

ITXLEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)



PASCUAL CHURRUGA, s.a.

Hotzian eta beruan jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461

E-mail: general@pascualchurruga.com

Errekalde 21 20590 SORALUZE

Ezoziko basiliza eraberritua



Juan Maria Uriarte Gipuzkoako Gotzaina izan zen kontsagrazio eguneko elizkizuna gidatzeko ardura nagusia ian zuena.

Soraluze aberatsa eta ugaria da oso, santu eta basilizen aldetik. Gaur egun 6 dira herrian basiliza moduan izendatuak dauden eraikin erlijiosoak; San Andreskoa, San Ignaziokoa, Irurekoa, San Martzialekoa, San Rokekoa, Ezozikoa eta besteak baino txikixea-goa den beste bat; Zabalekoa. 7 Basiliza hauetatik, dagoeneko 2 baino ez dira eraberritzeko premia larrian gelditzen direnak; Irurekoa eta San Martzialekoa.

Azken urteetan, San Roke eta San Andresko ermitak konpondu dira eta oraingoan Ezoziko basilizari tokatu zaio txanda. Bere betiko itxura zaharra mantentzen du baina esaerak dioen moduan, "azal zaharrari begira jarri, hobe da mamina barri".

Ezoziko basilizaren kontsagrazio elizkizuna

Joan zen larunbatean zabaldu zituen atearik Ezoziko Basiliza eraberritua. Atariko estalpea, teilatua, barrukaldeko horma, lehio berria eta Ezoziko Amaren irudia bera eraberritu zaizkio eta Jose Maria Uriarte Gotzainak kontsagrazio elizkizuneko bere sermoian azpimarratu zuen moduan; "Ermita baino katedrala dirudi honek!".

Guztira 22 milioi pezeta inguruko gastua izan dute eraberritze lanek. Erakunde publiko eta pertsona pribatuek egindako dirulaguntzei esker egin ahal izan zaio aurre diru kopuru honi eta oraindik ere konpondu beharreko zatiak gelditu badira ere; sakristia, erretabloak eta santuen irudiak esaterako, Ezoziko basilizak aurrera ere zutik jarraitzeko moduko berrikuntzak jasan ditu.

Jendez gainezka izan zen basiliza kontsagrazio ekitaldian eta denek harretaz entzun zituzten Gipuzkoako Gotzainak, kristau fedearen inguruan esan zituenak; basiliza hau berritzearekin kristau fedea ere berritu eta indartu behar dela alegia. Ekimen honek herriarendako duen "garrantzia" eta Udalak beronen izan duen partehartzea azpimarratu zituen Jokin Mitxelena herriko abadeak bere sermoian. Era berean, ez zuen ahaztu ekimen honetan 1.999. urtean Parrokiako kristau taldearen artetik osatu zen komisiok egindako lanaren garrantzia.

Bestalde, Ezoziko Ama Abesbatza-ren ahotsez, Don Asensio Gurrutxaga, urte askoan parrokiako organista izan zenak doinua jarritako "Plazentziako zaindaria dan Ezoziko Ama maiteari!" koplak sorta maitatua entzun ahal izan zen elizkizunean.

SAN ANDRES



SAN INAZIO



SAN ESTEBAN



Soraluzeko basilizak



JOKIN MITXELENA
Herriko abadea

Ezker-eskubi Deba ibaia inguraten duten bi mendi ilaratan, ikusten ditugu, han hemen, basilizak; gehienetan mendi tontortxoetan. Gure garai bateko herritarren fedea eta kristautasuna gogoratzen digute.

Desagertuen artean, Salbatore basiliza gogoratuko nuke. 1834ko ekainaren 30eko ugoaldeak, beste 16 etxe eta hainbat tailer bezala, eraman zuen. Zubiaren inguruan zegoen, ibaiaren ezker aldean. Santa Maria Magdalena basiliza ere aipatu daiteke; Zaharren Egoitzara igotera hasten dan puntuan zegoen; gaur gurutz bat dago bertan eta hango kanpaia aipatutako Egoitzan dago. Baseliza honetan azkenengo aldiz egin zan ospakizunaren berri, 1862koa dugu.

Gure basiliza gehienen sorketa hamabost-hamasei mendeetan bilatu behar dugu.

Kristau-herrian ezjakite erlijioso haundia zegoen. Izurrite, gose eta gerra denbora haietan jendeak erraz sinesten zuen mirarikeri, superstizio eta sorginkerietan. Baziren, baita, kristau laikoek eraginik sortu ziren erreforma erlijioso eta berriztasun bikainak ere.

Esan daiteke behar, ezbehar, zorigaitz bakoitzak bazeukala bere santu Zaindaria eta langintza, negozio eta ogibide bakoitzak ere bai, bere santu Patroia. Horregaitik zabaldu ziren hainbeste santu,erliki, kultu-leku eta irudien jaiarak.

Honela, begien babesle Santa Luzia jarri zuten; bularrentzat, Santa Ageda;

haurgintzarako, san Ramon; santa Engraxi gibelarentzat; hortzak zaintzeko, berriz, santa Apoloni; eta abar.

Elizak, gure kristau bizitzarako "eredu" izan daitezten ditu santuak. Baina herriak, askoan, babesle bezala hartu izan ditu.

Soraluzeko herriak, gaur erabiliak dituen basilizak hauek dira:

San Roke

Santu honek, gaixoeri eskaini zien bere laguntza eta bizia, ipar Italian izandako izurrite batean. Hamalagarren mendea zen. Eztarriko minen zaindaritzat dauka jendeak. Bere basiliza, hamasei mendekoa, orain hamar-bat urte zahar-berritu zuten herritar batzuek, merezimendu haundiarekin. Abuztuaren 16an ospatzen da bere jaiak. Ohitura da egun horretan parrokiatik prozesioan joatea, meza egin, salda eta bokadiloa hartu eta San Rokeren irudia parrokiara ekartzea. Urriaren 12an, beste horronbeste eginez, "Santua" bere basilizara eramaten da.

Ezoziko Andre Mari. -Herriko Zaindaria

Bere eliza hamaseigarren mendean eraikia dugu; baina badaude lehenagoko aztarnak ere. Erakundeen eta herriaren diru-laguntzarekin, zaharberritu da, eta orain egun batzuek bedeinkatu ta inaurratu da.

San Andres.-

Baserri talde eder bateri izena emanaz, auzo honen tokirik politenean dago hamazazpi garren mendean jasotako basiliza bikain hau. Orain bost urte guztiz berrizatu zuten bertakoek, auzolanean. Bertako jaiak, san Andres egunean ospatzen da, azaroaren 30ean. Baita ere, uztailaren bigarren igandean, uda denbora aprobeztatuz.

San Inazio.-

Orain dela berrogei bat urte ingurukoek auzolanean, jaso omen da basiliza hau, gure Inazio, Gipuzkoako Patroi haundiari.

San Emeterio eta san Zeledonio edo san Martzialen Baseliza

Hemendik pasatzen da Santa Ageda, san Esteban eta Salbatore basilizen ondok pasatzen da Eibarrera dihoan bidea. San Martzialen basiliza agertzen da 1556an. 150 famili bizi omen ziren garai hartan Soraluzen. San Emeterio eta san Zeledonioren jaiak abuztuaren 30ean da. Horregaitik ondorengo igandean ospatzen da jaiak basiliza honetan.

Irureko san Esteban

Elizaren lehenengo martiri honek ere, badauka jaiak gure Euskalherrian.

Ama Birjinaren Zeruratze jaiaren ondorengo igandean ospatzen da bere jaiak, eukaristia bat eginez.

SORALUZETIKO BASELIZAK ETA SANTUAK

EZOZIKO AMA



SAN ZELEDONIO / SAN EMETERIO



SANTA AGEDA



SAN ROKE



Pelota

Gaztetxoeren txapelketa amaitu da



Gaztetxoeren txapelketako finalak jokatu dira eta hona txapeladunen zerrenda:

Iñaki Goenaga eta Ibai Kortabarria
Unai Gisasola eta Jokin Arrillaga
Josu Unanue eta Aritz Ramirez

Muguruza azpitxapeladun Urretxun.

Muguruzak ezin izan zuten Urretxuko txapelketan garaipena lortu. Finalean Olaranekin batera 22 eta 17 galdu zuten.

Añorgako txapelketan Muguruza Gisasola-rekin batera ari zen parte hartzen baina final zortzirenetan kanporatuak izan dira.

Erlei Txurrukak ere txapelketa honetan parte hartu du baina final-laurdenean kanporatua izan da.

Iñaki Jauregi Erreterian.

Iñaki Jauregi Roteta-rekin batera Erreteria-ko txapelketan parte hartzen ari da. Jokaturako azken partiduan 22 eta 17 irabazi zuten eta txapelketan aurrera jarraitzen dute.

Laskurain udako partiduetan.

Laskurainek bere debut egunetik onra bi partidu jokatu ditu. Ez du garaipena lortzerik izan baina lehen egunean baino lasaiago aritu da eta mailan asentatzen doala dirudi.

Galarza—Laskurain 15
Baleztena -- Eulate 22

Etzaniz—Laskurain 12
Gonzalez—Apeztegia 22

Mendi Atletismoa

9 Plaentxiarrek parte hartu zuten Hiru Handietan

Hona hemen Hiru Handietan parte hartu zuten 9 plaentxiarren denborak:

- Jesus Mari Jauntsarats 18o. 07m.
- Gonzalo Ariznabarreta 20o. 40m
- Jon Arrieta 20o.52m.
- Angel Santo Domingo 21o.07m.
- Jabier Goenaga 21o. 19.m
- Jose Alberto Oregi 21o.20m.
- Zigor Alberdi (erretiratua)
- Lorenzo Alonso (erretiratua)
- Iñaki Burunza (erretiratua)

Aipatu behar Markel Galarragak "Quebrantauesos" ibilaldi gogorrean parte hartu duela.

Atletismoa

Azkona 2. Euskadikoan

Orain bi asteburu Durangon jokatu zen klubaren arteko txapelketan, 1,72 mko alturako jauziarekin bere mailako lehen postua lortu eta gero, Arrate Azkonak 2. Postua lortu zuten asteburu honetan Donostian ospatu den Euskadiko Txapelketan. Arratek 1,66mko jauzia egin zuten eta Marta Mendia, 1,88mrekin Espainiako errekorra duen jauzilariaren markaren itzalean gelditu behar izan zuten. Arrateren markarik hobereena 1.85 mkoa da eta beraz ez dago oraindik bere sasoirik onenean.

Bolo txapelketak

Gregorito eta Korta txapeladun Ezozin



Ezoziko jaietan jokaturako bola txapelketetan bi plaentxiarrek lortu zituzten txapelak. Ostiral gauan jokatu zen txapelketan Gregorito "Mendata"k lortu zuten txapela 4 txirilo jo eta gero. Domekako txapelketan berriz, Juan Kruz "Korta" izan zen garailea Sekoarenekin.

Futbola

Athletic-en garaipena zaleen arteko partiduan



Joan den larunbatean Ezozin jokaturiko partiduan athleticzaleek 7 eta 3-ko emaitzaz garaipena lortu zuten. Jokalariek zuten guztia eman zuten eta espero zitekeena baino espektakulo poli-

tagoa eman zuten. Jokalari askok leher eginda amaitu zuten baina gauean egin zuten afarian ondotxo berriztu zituzten indarrak.

Enrike Arana

Henry Arana; 45 urtez new york-en

Enrike Arana "Urzelai"-k 34 urte zituenean, 1956an, hilean 1000 pezeta irabazten zituen kamionero lanean. Eta gogaiturik, "sekula poltsikuan pezeta bat ez" zeukalako, Mutriku laga eta Ameriketarako bidea hartu zuen emaztea eta hiru seme-alabekin batera. Bertan bizi izan da 45 urtean, New York-en, eta ofizio desberdinetan aritu behar izan du; platerak garbitzen, autuak konpontzen, konstrukzioan, taxia gidatzen eta azkenik banko bateko txofer. Horiek denak kontatu dizkigu elkarrizketa luze batean, nola bizi izan duen irailaren 11-ko atentatua, eta baita George Bush aita-semeak nola ezagutu zituen ere. Orrialde bat gutxi da Oñatiar-Plazentziatar berritsu eta umoretsu honen berri emateko, baina tira, bere bizitzako pasarte batzuk etara ditugu behintzat.



Enrike Arana txofer moduan lan egin zuen bankuak eskeini zion diploma erakutsiz.

Hasierako urte gogorak barre artean gogoratzen ditu Enrikek: "Lagun bat etorri zuan, Erandio, ezagun bat zeukala garage baten biharrian, Rudy, eta ia nahi neban eurekin hastia. Nik baietz, lehengo be kamioiak inbilitta nenguala eta...esan bai nik errez. Aste bi egin najittuan! Ulertu ezin! Ezebez! Motorra

"Ez ete nok ba biziko nunbaitetik? Nere aman semia ez zuan honetarako jaiio!"

arreglatzeko piezak ekarri jostezen baiña ez najakixan zer egin. Lagunari deitu najotsan: hi Erandio, etorri hari hona! Esan bihar dotsek Rudyri eta, hemen gaizki nabillela, neuk ez jotset entenditzen ezer, eta eurak bez neri. Esan nerekin dirua galtzen dabizela, eta danon mesederako urtetia izango dala onena. Eskua emon, pagau josten eta agur."

Handik konstrukziora joan zen lanean. Errepideetan, aereoportutan eta halako lekuetan aritu zen bi urtez. "Rock Island-go kartzelan be ibili gintzuan, baiña gaizki. Zementua zuan, gogorra, harririkoskorrekin beteta. Behin palia hartu eta zementora bota najuan. Ni zertan na-

bik hemen? Zertan? Ez ete nok ba biziko nunbaitetik? Nere aman semia ez zuan honetarako jaiio! Eta hanka egin najuan. Konstrukziñoko bihar tristiok, txarrak."

Hurrengo 7 urteak taxiarekin eman zituen, N.Y.-eko abenidetan gora eta behera. "Txofer zela nakixan, taxisa probatzia pentsau najuan. Lehenenguetan txarto ibili nitzuan. Eskumara hartu bihar nebala esan, eta nik artian eskumia zer zan jakin bez. Baiña poliki-poliki ikasi egitten dok."

Esperientzia hartu zuenean, eta ingeles ikasi, banku batean hasi zen beharrean, txofer. "Bankua dok ona. Norberak zintzo jokatuez gero, lagundu egiten juek. Erakusten juek diruakin zer egin, eta neri ondo urten jostan." "Ezagutu najittuan Bush eta familixia. Oingo presidentian arrebian bodan izan nitzuan andriakin eta bankuko nagusixakin. Oingo presidentia holako gizon eskasa dala pentsatzen juat. 3 eguneko bodia izan zuan. Dirua jeuan han, ez politikorik. Petroleo-gizonak."

Jubilazioa hartu zuenerate, bankuan aritu zen lanean, 25 urtez, eta egindako diruekin Mutriku etxe dotore bat erosi zuten, eta poliki-poliki sorterrira itzult-

zen hasi ziren, gero eta denboraldi luzeagoak emanez Mutriku. Irailaren 11-ko atentatuak ere Mutriku harrapatu zuen Enrike, ezustean. "Hementxe ikusi genduan. Ni hantxe bertan nenguan egun bi aurretik. Eta gure semia haraxe juaten dok beti, juaten zuan, arkitektuen gauzak, ofizinetara eta bestera. Deittu najuan eta danak ondo zerela esan josten,

"Ezagutu najittuan Bush eta familixia. Oingo presidentian arrebian bodan izan nitzuan"

semia bidian zetorrela bertatik. Jende asko hil zuan han. Sekula ez dogu jakingo zenbat."

Orain Mutriku bizi da, itsasotik oso hurbil. Noizbehinka egiten du Estatu Batuetara bueltatxoren bat senitarteok bisitatzera eta berari ere etortzen zaizkio handik bisitan.

Estatu Batuetara joan aurretik, lagun zuen familia bateko andre batek laguntzen dio etxekolanetan eta lasai bizi da.

Been charmed with of having known yourself!

Jon Basauri

Ezoziko parkea inauguratu da



Ezoziko jaien barruan, ekainaren 15ean inauguratu zen ofizialki Ezoziko parkea. Guztira 26 miloi inguruko gas-tua izan du; lur betetzea, parkea eta bolatokia egiteko lanak barne direla.

Urrats dantza taldeko gaztetxoek dantza saioa egin eta alkateak zinta ebaki ostean inauguratuta gelditu zen Ezoziko parke berria.

Jaiak ere primeran!

Zubia antzerki taldearen arrakasta izugarria



Joan zen ekainaren 15ean Zubia antzerki taldeak "La casa de Alba Bernandez" antzezlan eskeini zuen Eibarko Unibertsitate Laboralean. Antzokian, 200 pertsona baino gehiago batu ziren, gehiengoa plaentxiarrak eta beraz, beldurrik gabe esan liteke antzezlanak izugarritzko arrakasta izan zuela; ez bakarrik horrenbeste plaentxiar batu zuelako, ikusleak oso gustora egon zirela aitortu zutelako baizik. Bikain!

Leire Rodrigezendako Kartel Lehiaketako saria

Aurten partehartze urria izan da jaietarako kartel lehiaketa txapelketan. Gaztetxoan mailan; Irati Gil (1.engo) eta Denis Garzia izan da 2.. Helduen mailan,

Leire Rodrigez izan da partehartzaile bakarra eta 2. saria lortu du. Aurtengo jaietako kartela, argazki edo irudiekin egindako kolax bat izango da.

Pepe Reyren hitzaldia

Datorren ostegunean, arratsaldeko 20:00etan, Narkotrafikoaren eta boteredunen arteko harremanen inguruko hitzaldia eskeiniko du Pepe Rey kazetari ezagunak Arrano elkartearen. Horrekin batera, "Poemak kartzelara, presoak poemekin kalera" izenburupean, ekainaren 22tik uztailaren 12ra zabalik dago Arranoan poemak entregatzeko epea. Uztailaren 14an emanaldi bat egingo da bildutako poema guztien irakurraldi bat eginez eta Asier Serramo poeta eibartarra ere bertan izango da.

Ipuin lehiaketa



Hauek izan dira aurtengo Ipuin Lehiaketako saridunak:

L.H. 3-4: 1engo Ohiane Alberdi, 2. Leire Garcia eta 3. Maitane Iglesias.

L.H. 5-6 (D eredu): 1engo Nerea Iñurrieta, 2. Aritz Arizaga eta 3. Lore Gallastegi.

L.H. 5-6 (B eredu): 1engo Josune Elizburu, 2. Jabier Fernandez eta 3. Mikel Saceda.

D.B.H. 1-2: 1engo Maite Quintanilla, 2. Sara Nieves, 3. Oskar Gutierrez. Helduen maila hutsik gelditu da. Zorionak danori!



Goizeko 6:30-etatik
aurrera zabalik!!

Gosarixak eta
pintxo
goxo goxuak !!

Errabal kalea, 15 Tfnoa 943 75 18 34



ELIZPE



h o r t z k l i n i k a

Elizburu, 3 behea
9 4 3 7 5 2 5 6 7
20590 Soraluze

Nora Arizaga

"Guraso barik ezingo nitzake bizi"

Erretratatzeko makinia soinian zebala urte zeban asteroko bere eginbeharretara eta gutxien espero zebanian han agertu zan, bere begixen aurrian, Plazentzia izeneko herri txiki bateko damatxo gazte bat.

- "Nora zoiatz Nora?" -galdetu zotsan espero zeban erantzuna entzungo zebalakuan. - "Ez dakit ba nora-nora.. Ajaja!!!". "Edonora jua baino lehen izango al zinuke nerekin berriketalditxo bat?"-galdetu zotsan orduan. Eta ezetz esateko astirik be emon barik, berak hain ondo preparatzen dittuan makarroiak be probau barik ekin zotsen hurrengo lerruetan leidu ahal izango dozuena esatiari... Eta hala bazan eta ez bazan, agertu deila barixakuan Pil-pileaneko kale kantalian.

Zaletasunak?

Jolastia eta panderua jotia.

Koloria, zenbakixa, animalixia?

Urdina, 3a , zaldixa.

Sekula ez da ahaztu bihar...

Etxetik urtetzen dozunian, dirua hartzia.

Lanik onena...

Albaitarixa izetia gustauko litzaidake.

Egun bateko plan borobila?

Goizian lagunekin gelditzia jolasian ibiltzeko eta atzaldian mendira juatia buelta bat emotera.

Eguneko momenturik onena?

Lo eitteko ordua.

Bapo geratzeko modoko bazkarixa?

Entsaladilla rusua, oilaskua eta limoi-dun mantekaua.

Sukaldian sartu ezkerro zein plater da zure espezialidadia?

Makarroiak, hori bakarrik...bestela ni sukaldian sartzen banaiz "akabo". Noizbaitten entsalada bat edo beste preparau izan dot.

Ezin dozu aguantau...

Pertsona batzuk.

Gaiztokerixaren bat?

Amari esana ez eittia.

Munduko gauzarik garrantzitsuena...

Osasuna.

Gustuko programa?

Goenkale telesaila.

Ezingo zinake bizi...

Guraso barik...

Irla batera ze eruangoz zenduke?

Nere lagun bat, erropia eta janarixa.

Noiz, nora, zeinekin eta zetara?



Bertso Begiz

Panderojole sutua eta
aita ta amaren maitale
albaitarixa izan nahi leuke
hain da bera asto ale.
Nora zure begixak,
bixi eta argixak,
mingain ta hanka bixkorrak.
Eskolia be amaittu data
pasaizuz ondo oporrak.

Etxebarri

(Doinua:

Iparragirre abila dela)

Nora Arizaga

Asteburu baten, edozein lektura lagunekin ondo pasatzera.

Desio bat?

Eskolia bukatzia.

Gertautako bitxikerixaren bat

Nere lagun bati uso batek kaka ein zotsan buruan...

Txisterik ez ei jako burura etortzen eta

Kike Amonarrizen bat ekarriko dogu gogora:

Patxiku Txiki drogerixara sartzen da ta

:

-Komuneko papera bihar dot

-Zer koloretakua?

-Berdin da. Zuk merkiena emoidazu

koloria neuk jarriko dotsat eta!!!!!!

Gururu

Telefonia 75 24 09

ARRANO

tabernia

"Giro euskalduna eta sanua"

ETORRI ETA GOZATU

EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK

etxera

Lakuesta

Optika 

Ikusmen arazozen frogak eta argibideak

Argazkiak errebelatzen ditugu

Santa Ana, 22 C- behea
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 30 59

Argazki zaharra

Galarraga Mendin 1952xan

Argazki honetan, 1.952. urtean Galarragamendira egun pasako irteeria egin zeban Soraluzetar mendizale talde bat azaltzen da. Mendi irteeria, orduko Sociedad Deportiboak antolatuta egin zan. Garai haretan ohitura handixa zeguan jentian artian, mendixan egun pasak egitteko; Akabeittin, Urkia Zelain eta beste hainbat tokittan.


Honek dira argazkixan agertzen dira mendizale plaentxiarrak: 1) Kasimiro Maiztegi, 2) (?), 3) Carmen Campos, 4) (?), (5) Juan Luis Egidazu, (6) Serafin Bolunburu, 7) (?), 8) Patxi Maiztegi, 9) Jon Izagirre, 10) (?), 11) Migel Larrañaga, 12) Anastasio Basauri, 13) Felix Abarrategi, 14) Jabier Iraeta, 15) x Abarrategi, 16) Jose Berrueta, 17) Ricardo Torrientes, 18) (?), 19) x Oregi, 20) Igone Izagirre, 21) Gloria Aristi, 22) M^a

Jesus Etxaniz, Mari Tere Elozegi, 25) (?), 26) Jabier Iraeta, 27) Primitibo Etxeberria, 28) Anjel Osa, 29) Mikel Berraondo, 30) (?), 31) Araceli Arizaga, 32) M^a Karmen Larrañaga, 33) Anjel Elizburu, 34) Magdalena Iriondo, 35) Maria Osa, 36) M^a Ines Arrillaga, 37) Ion Aldazabal, 38) Agustin Abarrategi, 39) Juanita Olaizola, 40) Juan Intxaurrealde, 41) Eugenio Urrestarazu.

Argazkiak: Karmen Larrañaga eta Lorenzo Oregi

LEHIAKETA BEREZIXA.

Jaixetako txupinazua botatzeko hautagaiaren aukeraketa.

Zure ustetan zeinek bota bihar leuko txupinazua?

DEITU BIZKOR BIZKOR 943 75 13 04 ra eta esan zure ustetan aurtengo jaixetako txupinazua bota bihar leukien pertsona edo taldiaren izena.

Zuek proposatutako hautagaien artian dei gehixenek aipatu dabena aukeratuko da jaixetako txupinazua botatzeko.

Gainera, bi lagunendako afari mundial bat irabazi zeinke.

ANIMATU ETA DEITU!

Aurreko aleko irabazliak:
Beatriz Arizaga (40) Gaizka Larrañaga (136)
(Aleak jaso iratxo goxodendan)

Antolatzaileak

 pilpilean

SORALUZEGO
UDALA





ESOZIA

*Erretegi
Jatetxea*

Bº Esozia, s/n. - Tel. 751001 - SORALUZE

Etxabe harategia

Euskal txahalkia - Bildotsa

Merkatu plaza, 6-7 postuak
Tlfnoa: 943752375

Lonbide taberna

*Pintxoak
Ardoak, kafeak eta likoreak*

Errabal kalea, 9
Tfnoa 943 75 14 07



Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarateak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Tlfonoa: 943 75 17 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA



Kiru Muntaiak

Blas Elizburu Kortabarria
Sukalde, enpotratu
eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.

Errekaldia, 30
Tfnoa 943 75 13 12
Eskuko tfnoa 670 05 18 20



Limpiezas
industriales

Limpiezas

Trejo, S.L.

Rekalde, 30 behea
Tel.: 943 75 25 57
Faxa: 943 75 25 56
20.590 SORALUZE

FER. S.A. Industriak

Eskulanetarako tresnak

Industrialadea, 17 - 20590 Soraluze
Tlfonoa: 943 75 20 00 Faxa: 943 75 19 80 E-maila: fer@nexo.es

Juan Mari Arraindegia

*Eguneroko
arraina
eta konjelatuak*

Merkatu Plaza
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 24 40
Partikularra 943 74 03 69



Ondo pasau oporrak!



Haur Hezkuntzan antzerki tailerrak antolatu zituzten, Soraluzeko gatetxoenen ahozketasuna lantzeko helburuarekin. Irudian Edurne Zuriren antzezlanaren bigarren emanaldia egin zuten neska mutikoak.



Ikasturte amaieran Haur Hezkuntzako neska mutikoez Mutrikura egin zuten irteeran itsasoa ikusi eta itsasondoko herri polit hau ezagutu zuten. Urrutira joan gabe, hurbilean ere badaude bisitatzeko moduko leku ederrak.

Datorren irailtik aurrera berriz ere Ugaraxo aldiakarian jasoko dituzue zuen ikastetxeko berriak. Bitartean ondo pasatu udako oporrak eta bete indarrez irailean berriz ikasketei heltzeko.



Peugeot 307. Ez da zenbaki bat bakarrik
2002 urteko autoa da European



Ze puntutaraino izan dezakezu konfidantza auto batekin? Punturik goreneneraino. Batu eta irabazi egin dugu. 6 Airbag (aurreko inteligente 2, alboko bi eta kortina moduko sabaiko bi, aurreko eta atzeko bidaiariendako) eta ABSez gainera, zure eskura jartzen ditugu segurtasuneko elementurik aurreratuenak:

EVA (larritasunezko frenatuekoko laguntza), REF (frenatuaren banaketa elektronikoa), ECS (garondoko lesioen aurkako babes sistema), oiñ-jartzeko aktiboa,

Norabide habe atzeragarria eta ESP (orekaren kontrol dinamikoa). Xehetasun eta kontrol osoa.

ETORMOBIL
Otaola etorbidea 22
Tel.: 943 20 09 66
EIBAR

307 
PEUGEOT